

FRANCO AURELIANI



DINO-MIKEL

ETA

T. REX aren ERASOA

desclée

DINO-MIKEL

ETA

**TIRANOSAUROAREN
ERASOA**

EGILEA ETA ILUSTRAZIOAK

FRANCO AURELIANI

desclée

AURKIBIDEA

1. atala	
ORROA!	6
2. atala	
T-REX BAT!	16
3. atala	
OSPA!	27
4. atala	
NESKA MISTERIOTSUA	33
5. atala	
DINO-AFARIA	38
6. atala	
SALTXITXATZEN!	43
7. atala	
JEFF JURASIKOA!	67
8. atala	
ARAZO LARRIAK	81
9. atala	
AI AMA!	91
10. atala	
DINO-ARRAUTZAK!	109



DINO-MIKEL

Mikel Evans gaztea beti ibiltzen da aitarekin bidaiatzen, aita dinosauro-fosilen bila aritzen delako. Britainia Handiko kostalde jurasikotik Txinako Liaoning probintziara, Dino-Mikel gaztea toki guztietan izan da. Harrigarria, ezta?!

Aita fosilei hautsa kentzen dabilen bitartean, Mikel hezurretaraino nahasita ibiltzen da dino-kontutan. Baina oraingoan benetako aurkikuntza bat egingo du. Tiranosauro baten arrautza bizidun bat! Aro Jurasikora bidaiatzeko ate bat da!! Urpeko dinosauro-santutegi bat!!!

Inork ere sinetsiko ez lukeen abentura ero eta aldrebes bat bizitzear zaude Dino-Mikelekin...

1. Atala

ORROA!

Kanpin-dendatxo batean, Mikel Evans bere lo-zakuan etzanda zegoen. Argi batek dir-dir egin zuen bere ondoan. Kanpoan, igelek korroka egin zuten udaberriko gau hozkirri batean.

Bat-batean, kanpin-dendaren albo batean itzal handi bat agertu zen. T-rex bat!

—**Grrrrr!** –egin zuen orro ahots batek.

—**Aaaaa!** –egin zuen garrasi Mikelek, ezustekoagatik tente jartzen zela.





—Kar, kar! –egin zuen barre Mikelen aita Stanleyk. Eskuak argiaren aurrean mugitzen ari zen—. Ez dago gaizki itzal-munstro bat izateko, ezta?

—Barrez lehertzeko modukoa, aita –esan zion Mikelek, berriro ere etzaten zela—. Orain ezin izango naiz lokartu.

—Hobe duzu atseden hartu, seme
–esan zion aitak–. Bihar beharbada
benetako *Tyrannosaurus rex* baten
hezurak aurkituko ditugu.

—Benetan? –galdetu zion Mikelek,
zirrarak hartuta.

—Zorte pixka batekin, bai
–erantzun zion aitak. Argia itzali
zuen–. Ba al zenekien lehenengo
T-rex fosilak...?

—Hemen aurkitu zituztela,
Montanan, 1902an –moztu zion
Mikelek.

—Kontxo! –esan zion aitak–.
Dinosauroei buruz gauza pare bat
badakizu, argi dago! Baina ba al
zenekien T-rex bat teropodo bat dela,
hau da...?

—Bi hankan zebilela, ez lau
hankan –esan zion barreka Mikelek–.

Joan zen astean galdetu zenidan. Ez duzu gogoratzen, aita?

—Egia, baina ia ahaztu zaidana beste gauza bat da –esan zion aitak. Eskua motxilan sartu eta opari bat atera zuen—. Hau denez zure lehenengo indusketa arkeologikoa, oparitxo bat ekarri dizut.

